

Emakume kristauek idatzitako latin-literatura, Perpetuatik Rosvitara

Enara San Juan Manso

Filologia Klasikoan doktorea eta Euskal Filologian lizentziatua

Gizonek idatzi zituzten Antzinateetik eta Erdi Arotik heldu zaizkigun latinezko testu gehienak; hala ere, zenbait lekukotasunek argi uzten dute emakume gutxi batzuek ere izan zutela idazteko aukera garai horietan. Antzinateko emakume erromatarrek —alegia, ez kristauek— latinez idatzitako testuei dagokienez, heldu zaizkigun pasarte guztien euskarazko itzulpena daukagu eskura 2022tik; emakume kristauen lanei dagokienez, IV. mendean Egeriak idatzitako *Ibilbidearen* euskarazko itzulpena argitaratu zen 2022an eta, 2024an bertan, X. mendean Rosvitak ondutako teatro-lanena kaleratu da. Artikulu honetan, Antzinateetik X. mendera arte emakume kristauek latinez idatzi zituzten zenbait testuren berri ematen dut; hala, testu horiek euskal komunitatearen eskura jarri ez ezik, emakume kristauek idatzitako latin-literaturaren barruan Egeriaren eta Rosvitaren lanek zer leku duten zehazten ere laguntzen du artikulu honek.

GAKO-HITZAK: Latin-literatura · Antzinateko Erroma · Erdi Aroa · Emakume kristauak.

Latin Literature written by Chrystian Women, from Perpetua to Hrotsvitha

Most of the Latin texts that have survived from Antiquity and the Middle Ages are written by men; however, at that time also a few women had the opportunity to write, as a few testimonies make clear. Regarding the texts written in Latin by ancient Roman women—that is to say, not Christian—, the Basque translation of all the testimonies we preserve is available since 2022; as for the works of Christian women, the Basque translation of Egeria's *Itinerarium* (4th century) was published in 2022, and has just been published Hrotsvitha's dramatic work (10th century). This paper aims to present some Latin texts written by Christian women from Antiquity to the 10th century; thus, not only does it provide the Basque community with those texts, but it also helps determine the place of Egeria's and Hrotsvitha's works within the contemporary Latin literature written by Christian women.

KEY WORDS: Latin Literature · Ancient Rome · Middle Ages · Christian Women.

Sarrera

Antzinateko emakumeek latinez idatzitako testuen gaineko bi lan argitaratu ziren 2022an: batetik, *Poetandreak literatura greko-latindarrean* izeneko antologia poetikoan, emakume greziarrek eta erromatarrek ondutako poesiak ekarri zituen euskarara López Las Herasek (2022a); bestetik, *Uztaroko* artikulua batean, emakume erromatarrek poesiaz eta prosaz idatzitako latinezko testuen berri eman nuen nik neuk (San Juan Manso, 2022). Orain arte latin-literaturatik euskaratutako idazlan guztien¹ osagarri dira 2022. urtean kaleratutako lan horiek. Biek ala biek kristauak ez ziren emakumeek —paganoez— idatzitako testuez dihardute; alabaina, emakume kristauak ere izan ziren idazle, hala Antzinatean bertan nola ondorengo garaietan.

Emakume kristauek sortutako latinezko testuen artean, Egeriak IV. mendean idatzitako *Ibilbidea* da ezagunenetakoa bat, eta lan hori ere euskaratu zuen 2022an López Las Herasek berak (2022b); argitaratu berri da, bestalde, Rosvitak X. mendean idatzitako teatro-lanen euskarazko itzulpena (San Juan Manso, 2024). Emakume kristauek idatzitako latin-literaturaren barruan Egeriak eta Rosvitak zer leku duten zehazte aldera eta, orobat, emakume idazle kristauen ikuspegia osatze aldera, interesgarri iritzi diot artikulua honetan X. mendera arte idatzi zuten emakume kristauen berri—gutxienez, hoberen ezagutzen ditugun berri—emateari. Espazio-arrazoiengatik, agian ez dut behar bezain sakon azalduko nola eragin zuten emakume horien testuetan garaian garaiko beste autoritate eta idazlan batzuek; hala ere, lantxo honek izen ezezagun batzuk mahai gainean jarriko dituelakoan nago. Aipatuko ditudan emakume guztien artean, arreta berezia jarriko dut Dhuodarengan (IX. mendea), haren lana aski mardulagoa baita gainerako lekukotasunen aldean; Egeriaren eta Rosvitaren kasuan, berriz, modu nahiko sintetikoan arituko naiz, emakume horiei buruzko informazio gehiago eskaintzen baita López Las Herasen (2022b) liburuan eta nirean (San Juan Manso, 2024)².

1. Berezi ki nabarmendu nahiko nuke Bilbao Telletxeak (2002) argitaratutako *Latin-literaturarako sarbidea* liburua, hainbat idazle eta euskaltzalek euskarara ekarritako pasarteak bilduta baitaude bertan. 1936. urtera arte egindako euskal itzulpenen inguruan, ezinbestekoak dira Ruiz Arzalluzen (1988; 2010) lanak. Berriki euskarara ekarritako latin-literaturako testuen gainean, «Latindar literatura euskaratzeko proiektuak: Orixeren 1919ko asmoetatik UPV/EHUren ADDira» izeneko sarrera idatzi zuen Gidor Bilbaok berak 31 *eskutik* talde-blogean, hemen eskuragarri: <https://31eskutik.eizie.eus/2023/05/26/latindar-literatura-euskaratzeko-proiektuak-orixeren-1919ko-asmoetatik-upv-ehuren-addira/> (Kontsulta: 2023-07-30).

2. Argi utzi nahiko nuke jarraian aipatuko ditudan datuak ez direla nik egindako ikerketa zuzenaren ondorio, baizik eta berariazko lanetatik ateratakoak. Oro har, Dhuodaren aurreko lekukotasunei dagokienez, Dronkeren (1984, 3-35. or.) laneko lehen kapituluari («From Perpetua to the eight century») jarraitu diot, eta Bibliografia atalean aipatutako lanekin osatu dut bertan emandako informazioa. Kanpoan utzi ditut Dronkek (1984, 24-26. or.) aipatzen dituen *carmina epigraphica* direlakoak, lekukotasun anonimoak edo oso laburrak baitira; nolana ere, ziurrenik, beste zenbait emakumek idatzitako testuak ere aipatu gabe geratuko dira lan honetan, oraindik ere ezagutzeke eta aztertzeke baititugu Erdi Aroko hainbat testu (Dronke, 1984, vii). Artikuluan hizpide ditudan lekukotasunen garaiko latin-literaturari buruzko informazio zabalagoa ematen dute, besteak beste, Albrechtek (1997-1999) —VI. mendera arteko latin-literaturari buruz— edota Brunhölzlek (1990-1996) —VI. mendetik aurrerakoari buruz—. Bestalde, lan honetan ageri diren izenak transkribatzeko, batik bat Euskaltzaindiaren 76., 180. eta 181. arauak hartu ditut aintzat. Ez nuke esan gabe utzi nahi oso eskertuta nagoela ebaluatzaile anonimoekin, artikulua osatzeko egindako iruzkinengatik.

Lekukotasunak

1. Vibia Perpetua

Bizi: ca. 181-203.

203 urtearen hasieran, Vibia Perpetua atxilotu zuten Kartagon, desobedientzia zibila leporatuta. Familia onekoa bide zen Perpetua, eta, atxilo hartu zuten unean, ezkontuta zegoen eta bularra ematen zion oraindik seme txikiari. Artean bataiatugabea zen Perpetua, baina kristau-ikasbidea ikasten ari zen, *catechumena* gisa, eta, kristauak egin ohi zuten bezala, uko egin zion enperadorearen ohoretan sakrifizio bat egiteari; horrenbestez, erail egin zuten, urte horretako martxoaren 7an.

Espetxealdian, bere sufrikarioari buruzko zenbait ohar idatzi zituen Perpetuak, eta haren nekaldia idatzi zuenak bildu zituen ohar horiek (*Passio SS Perpetuae et Felicitatis*, III-X), hitzez hitz (*sicut conscriptum manu sua*). Besteak beste, familiak egindako bisiten berri ematen du bere oharretan Perpetuak: haren esanetan, bera kristautasunetik aldentzen saiatu zen aita —ez baitzen kristaua—, baina berak tinko eutsi zion bere fedeari³:

Cum adhuc, inquit, cum prosecutoribus essemus, et me pater uerbis euertere cupiret et deicere pro sua affectione perseueraret: «Pater, inquam, uides, uerbi gratia, uas hoc iacens, urceolum siue aliud?». Et dixit: «Video». Et ego dixi ei: «Numquid alio nomine uocari potest, quam quod est?». Et ait: «Non». «Sic et ego aliud me dicere non possum, nisi quod sum, Christiana». Tunc pater motus hoc verbo mittit se in me, ut oculos mihi erueret: sed uexauit tantum. Et profectus est uictus cum argumentis diaboli. (*Passio*, III)

Oraindik —dio [Perpetuak]— gure jazarleekin geundelarik, eta aitak, niganako maitasunagatik, hitzekin ni ezeztatu nahi ninduelarik eta ni abailtzeari uzten ez ziolarik, esan nion: «Aita, ikusten al duzu, adibidez, hor dagoen ontzi hori, pitxerra edo dena delakoa?». Eta esan zuen: «Ikusten dut». Eta nik esan nion: «Deitu diezaiokegu dena ez den beste izen batez?». Eta esan zuen: «Ez». «Ba, hala, neuk ere ezin dut neure buruaz esan naizena ez beste ezer: kristaua». Orduan, hitz horrek astinduta, nigana oldartu zen, niri begiak erauzteko: baina ni iraindu besterik ez zuen egin. Eta garaiturik alde egin zuen, deabruaren argudioekin.

Hasieran indartsu agertzen bada ere, aurrerago, heriotza-zigorra ezartzen diotenean, Perpetuak munduarekiko lotura galtzen du nolabait; hainbesteraino, non semearengatik arduratzeari ere uzten dion:

Tunc nos uniuersos pronuntiat, et damnat ad bestias: et hilares descendimus ad carcerem. Tunc quia consueuerat a me infans mammas accipere, et mecum in carcere manere, statim mitto ad patrem Pomponium diaconum, postulans infantem. Sed pater dare noluit, et quomodo Deus voluit, neque ille amplius mammas desiderauit, neque mihi furorem fecerunt: ne sollicitudine infantis et dolore mammaram macerarer. (*Passio*, VI)

3. Ruiz Buenoren (1962a, 419-440. or.) lanetik aipatzen ditut Perpetuaren nekaldiaren latinezko pasarteak, nik egindako euskarazko itzulpenarekin batera. Lan honetan bildutako gainerako testuak ere nik ekarri ditut euskarara, Egeriarenak salbu.

Orduan, gu guztion kontrako epaia eman zuen, eta piztietara zigortu gintuen: eta pozik jaitsi ginen espetxera. Orduan, umeak nire titia hartu ohi zuenez eta espetxean nirekin egon ohi zenez, nire aitarengana bidali nuen Ponponio diakonoa, umea eskatzeko. Baina aitak ez zion eman nahi izan, eta, Jainkoak hala nahita, umeak ez zuen nire titia gura izan, ezta nik ere titietan inolako garrik sentitu: umeagatikoa ardurak eta titien minak ez nintzaten ahuldu.

Atxiloaldian izandako lau ikuspenen kontakizuna ere egiten du Perpetuak bere oharretan; ikuspen horietako laugarrenean, hilezkortasunaren urrezko sagarrak⁴ eskuratzen ditu. Horrenbestez, ametsetan behintzat, garaipena lortu zuen Perpetuak:

Vix tandem peruenimus anhelantes ad amphitheatrum, et induxit me in media arena. [...] Et petiit silentium, et dixit: «Hic Aegyptius, si hanc uicerit occidet illum gladio; haec si hunc uicerit, accipiet ramum istum». Et recessit. Et accessimus ad inuicem, et coepimus mittere pugnos. Ille mihi pedes adprehendere uolebat: ego autem illi calcibus faciem caedebam, Et sublata sum aere, et coepi eum sic caedere quasi terram non calcans. At ubi uidi moram fieri, iunxi manus, ut digitos in digitos mitterem. Et adprehendi illi caput, et cecidit in faciem; et calcaui illi caput. Et coepit populus clamare, et fauissos mei psallere. Et accessi ad lanistam, et accepi ramum. Et osculatus est me, et dixit mihi: «Filia, pax tecum». Et coepi ire cum gloria ad portam Sanauuariam, et experrecta sum. Et intellexi me non ad bestias, sed contra diabolum pugnaturam; sed sciebam mihi esse victoriam. (*Passio*, X)

Azkenean, ozta-ozta, anfiteatrora heldu ginen, arnasestuka, eta arearen erdigunera eramanez. [...] Eta isiltasuna eskatu zuen, eta esan zuen: «Egipziar honek hura⁵ garaituko balu, ezpatarekin hilko du; berak⁶ hura⁷ garaituko balu, adar hau⁸ jasoko du». Eta alde egin zuen. Eta elkarrengana hurbildu ginen, eta elkarri ukabildakadak ematen hasi ginen. Berak hankak heldu nahi zizkidan: nik, berriz, oinekin aurpegia astintzen nion. Eta altxatu ninduen airera, eta hasi nintzen bera astintzen, lurra zapaldu gabe bezala. Baina, borroka luzatzen ari zela ikusi nuenean, eskuak elkartu nituen, atzamarrak atzamarrekin jartzeko. Eta hartu nion burua, eta jo zuen lurra aurpegiarekin; eta zapaldu nion burua. Eta jendea oihuka hasi zen, eta nire aldekoak kantuan hasi ziren. Eta *lanistarengana* gerturatu nintzen, eta adarra jaso nuen. Eta, musu eman, eta esan zidan: «Alaba, bakea zurekin». Eta, loriaturik, *Sanauuaria* delako aterantz⁹ joaten hasi nintzen, eta esnatu egin nintzen. Eta ulertu nuen ez nintzela piztien kontra borrokatuko, ezpada deabruaren kontra; baina banekin nirea zela garaipena.

4. Hesperideen lorategiko urrezko sagarrak. Greziar mitologian, eguzki-sartzearen edo arratsaren ninfak ziren Hesperideak. Sartaldean bizi ziren eta Hesperideen Lorategi delakoa zaintzen zuten; bertan hazten ziren hilezkortasunaren urrezko sagarrak, eta horiek lapurtzea izan zen, adibidez, Euristeok Herkulesi ezarritako lehenengo lana (Grimal, 1981, 264. or.).

5. Perpetua.

6. Perpetuak.

7. Egipziarra.

8. Hesperideen lorategiko urrezko sagarren adarra. Perpetuaren pasarte hau irakurrita, inork pentsa lezake testua palma-adarraz ari dela: Antzinate klasikoan, garaipenaren ikurra zen palma-adarra; Ekialdeko zenbait erritutan, hilezkortasunarena, eta, Ebanjelioaren arabera, kristauak ere palma-adarrekin egin zioten harrera Jesusi, hura Mesias bezala sartu zenean Jerusalem (Jn 12.12-13). Nolanahi ere, Perpetuaren nekaldiaren testuan bertan (*Passio*, X), hemen jaso ez dugun esaldi batean, «urrezko sagarrez betetako adar berdea» (*ramum uiridem in quo erant mala aurea*) aipatzen da, eta, horrenbestez, argi dago hari egiten diola erreferentzia pasarte honek.

9. Bizien aterantz.

Ikus daitekeenez, hizkera zuzena eta hurbila erabili zuen Perpetuak bere egoera eta pentsamenduak adierazteko, apaingarri estilistikoetara jo gabe. Perpetuaren nekaldiak oihartzuna izan zuen geroagoko zenbait idazle kristaurengan; besteak beste, Agustinek laudatu zuen emakume hau, hiru sermoitan (*Sermones*, 280-282; ikus Luis, 1984, 82-94. or.).

2. Paula eta Eustokia

Bizi: IV.-V. mendeak.

Paula (+ 404) Erromako aristokraziako familia batean jaio zen. Alargun geratu ostean, Jeronimoren dizipulu izatera heldu zen, Martzela lagunaren bitartez. 385. urte inguruan, Jerusalemera bidaiatu zuen Eustokia alabarekin (+ ca. 420), Testamentu Zaharrean eta Berrian aipatzen diren zenbait leku bertatik bertara ikusteko; handik, eskutitz bat idatzi omen zioten Erroman zegoen Martzelari. Testu hori Jeronimok (*Ep.*, 46) bildu zuen, eta, horregatik, zenbaitek pentsatu izan dute Jeronimok berak idatzi zuela gutuna. Gaur egun dauzkagun datuekin, ez dago ziur jakiterik nor den eskutitzaren egilea; hala ere, gutunaren berri emango dut jarraian datozen lerrootan, Paulak eta Eustokiak zalantza onura merezi dutelako ustean.

Gutunean, leku santuen handitasuna goraiatzeko dute; horretarako, Eskritura Santuetan ageri diren ideiei jarraitzen diete oro har, eta ez dute apenas azaltzen sentipen eta gogoeta pertsonalik. Pasarte honetan, esaterako, batasun- eta harmonia-iturri gisa irudikatzen dute kristautasuna, ohiko topikoei helduta¹⁰:

Nec hoc dicimus quo renuamus regnum Dei intra nos esse, et sanctos uiros etiam in ceteris esse regionibus, sed quo hoc adseramus uel maxime, eos, qui in toto orbe sunt primi huc pariter congregati. Ad quae nos loca non ut primae sed ut extremae uenimus, ut primos in eis omnium gentium cerneremus. Certe flos quidam et pretiosissimus lapis inter ecclesiastica ornamenta monachorum et uirginum chorus est. Quicumque in Gallia fuerit primus huc properat. Diuisus ab orbe nostro Britannus, si in religione processerit, occiduo sole dimisso quaerit locum fama sibi tantum et scripturarum relatione cognitum. Quid referamus Armenios, quid Persas, quid Indiae et Aethiopum populos ipsamque iuxta Aegyptum fertilem monachorum, Pontum et Cappadociam, Syriam Coelen et Mesopotamiam cunctaque orientis examina? quae, iuxta saluatoris eloquium dicentis: *ubicumque fuerit corpus illuc congregabuntur aquilae*, concurrunt ad haec loca, et diuersarum nobis uirtutum specimen ostendunt. (*Epistola*, 46, 10)

Eta ez dugu hori esaten ukatzeko Jainkoaren erregetza gure baitan dagoela [Lk 17, 21] eta gainerako eskualdeetan ere santuak daudela, baizik eta erabat baiezatzeko lurbera osoko lehenak daudela hemen bilduta. Leku hauetara etorri gara gu, ez lehen gisa, baizik eta azken gisa, bertan herri guztietako lehenak ikusteko. Ezbairik gabe, Elizaren edergarrien artean, monjeen eta birjinen taldea da lorerik eta harribitxirik preziatuena. Galiako lehen guztiak etortzen dira hona. Gure mundutik banatuta dagoen britaniarrak erlijioan aurrera egiten badu, sartaldea utzi, eta entzutez eta Eskritura Santuen kontakizunagatik bakarrik ezagutzen duen lekua bilatzen du.

10. Ruiz Buenoren (1962b, I, 318-334. or.) lanari jarraikiz ematen dut gutunaren latinezko testua. Bai pasarte hauetan, bai aurreragokoetan, Dionisio Amundarainek koordinatutako *Elizen Arteko Bibliatik* atera ditut Bibliako euskarazko aipuak (hemen eskuragarri: <https://www.biblija.net/biblija.cgi?l=eu> [Kontsulta: 2023/07/30]).

Zer esango dugu armeniarrez?; zer, pertsez?; zer, Indiako eta etiopiarren herriez, eta monjez ugaria den ondoko Egiptoz beraz, Pontoaz eta Kapadoziaz, Zelesiriaz eta Mesopotamiaz, eta ekialdeko saldo osoaz? Denek, Salbatzaileak dioen bezala —*Sarraskia non, han biltzen dira putreak* [Mt 24, 28]—, bat egiten dute leku hauetan, eta bertute askoren lagina erakusten digute.

Erromes perfektuaren irudia emate aldera, Lurralde Santurako erromesaldietan bisitatu beharreko lekuen zerrenda ematen dute Paulak eta Eustokiak, eta bisitan etortzeko erregutzen diote Martzelari, maitasuna eta laguntasuna elkarri adierazteko kristauak erabili ohi duten tonu hunkigarri eta hanpatuarekin:

O quando illud tempus adueniet, cum anhelus nuntium uiator adportet Marcellam nostram ad Palaestinae litus adpulsam, et toti monachorum chori, tota uirginum agmina concrepabunt? obuam iam gestimus occurrere, et non expectato uehiculo concitum pedibus ferre corpus. Tenebimus manus, ora cernemus et a desiderato uix auellemur amplexu. Ergone erit illa dies, quando nobis liceat speluncam saluatoris intrare? in sepulchro Domine flere cum sorore, flere cum matre? crucis deinde lignum lambere, et in oliueti monte cum ascendente Domino uoto et animo subleuari? uidere exire Lazarum fasceis conligatum, et fluenta Iordanis ad lauacrum Domini puriora? (Ep. 46, 13)

Noiz ekarriko digu bidaiariren batek, arnasestuka, Martzela Palestinako itsasertzean porturatu delako berria? Noiz durundatuko dute monje-talde guztiek eta birjina-alda guztiek? Irrikaz gaude zurekin elkartzeko eta gure gorputza zure ondora bizkor eramateko, oinez, inolako ibilgailuri itxaron gabe. Hartuko dizkizugu eskuak, so egingo diogu zure begitarteari, eta nekez erauziko gaituzte desiraturako besarkadatik. Helduko al da Salbatzailearen haitzuloan sartzea zilegi izango zaigun eguna? Jaunaren hilobian ahizparekin negar egitea, amarekin negar egitea zilegi izango zaiguna? Ondoren gurutzearen zutoina miazkatzea eta, Olibetako mendian, zerura igotzen ari den Jaunarekin batera, borondatez eta gogoz goratuak izatea zilegi izango zaiguna? Lazaro bere loturekin estekatuta irteten ikustea eta Jaunaren bataioagatik araztutako Jordanen ur-lasterrak ikustea zilegi izango zaiguna?

Bidaia horren ondoren, Beleneko monasterio batean bizitzen geratu ziren Paula eta Eustokia, Jeronimoren lagunartean; hiri horretan hil ziren, bai ama, bai alaba.

3. Egeria

Bizi: IV. mendea (fl. 383-384).

Egeriak Paula eta Eustokiaren garai bertsuan bidaiatu bide zuen Jerusalemera (383-384. urteetan). 1884an haren *Ibilbidea* gordetzen duen eskuizkribua aurkitu zutenetik, hala egilearen izenari eta jatorriari nola haren lanari buruzko hainbat teoria proposatu izan dira, López Las Herasek (2022b, 15-38. or.) laburbiltzen duen moduan. Nolanahi ere, badirudi *Gallaecia* probintziako lekuren batean kokatu beharra dagoela Egeriaren aberria, eta, beraz, pentsatzekoa da handik abiatu zuela Ekialdeko hainbat lekutara —tartean, Jerusalem, Tebas edota Edesara— eramango zuen bidaia.

Istorio bat kontatu baino areago, bidaia horretako aleak helarazi nahi dizkie Egeriak bere «ahizpa andereei» (*dominae sorores*). Horretarako, «hizkera arrunta

darabil, zuzena, hurkoa» (López Las Heras, 2022b, 34. or.); zenbait adituren esanetan, letaniaren eitea ere badu haren kontaketa-estiloak, orduko zeremonia liturgikoen antzera (Dronke, 1984, 19. or.). Hona hemen adibide bat, esandakoaren erakusgarri¹¹:

Tunc ergo, quia retinebam scriptum esse baptizasse sanctum Iohannem in Enon iuxta Salim, requisivi de eo, quam longe esset ipse locus. Tunc ait ille sanctus presbyter: «Ecce hic est in ducentis passibus. Nam si uis, ecce modo pedibus duco uos ibi. Nam haec aqua tam grandis et tam pura, quam uidetis in isto uico, de ipso fonte uenit». Tunc ergo gratias ei agere coepi et rogare ut duceret nos ad locum, sicut et factum est. Statim ergo cepimus ire cum eo pedibus totum per uallem amenissimam, donec perueniremus usque ad hortum pomarium ualde amenum, ubi ostendit nobis in medio fontem aquae optime satis et pure, qui a semel integrum fluuium dimittebat. Habebat autem ante se ipse fons quasi lacum, ubi parebat fuisse operatum sanctum Iohannem Baptistam. (XV, 1-2)

Orduan, Joan santuak Enon-en, Salim ondoan, bataiatzen zuela idatzita zegoela gogoratzen nuenez [Jn 3, 23], leku hura handik zenbatera zegoen galdetu nuen, eta presbitero santu hark erantzun zidan: «Hemen dago, berrehun pausora. Nahi baduzu, oraintxe bertan lagun zaitzakete oinez bertaraino. Hemen ikusten duzuen hain ur oparo eta garbia iturri beretik dator». Segituan hasi nintzaion eskerrak ematen, eta hara gida gintzan erregutu nion, eta hala egin zuen. Berehala ekin genion berarekin batera bailara atsegin hartan barrena oinez ibiltzeari, harik eta fruitudun baratze zoragarri batera iritsi ginen arte, zeinaren erdian ur bikain eta garbiko iturri bat erakutsi zigun, handik ibai oso bat eratzen zuena. Iturriaren aurrean laku moduko bat zegoen, antza, San Joan Bataiatzaileak bataioa ematen zuen lekua.

Pasarte horrek agerian jartzen duenez, neurri handi batean jakingurak gidatutako bidaia da Egeriarena; zenbaitetan, aditzera ematen du bisitatutako lekuen santutasuna baieztatu nahi duela bere lekukotasunaren bidez, eta, santutasun hori azpimarratzeko, testu sakratuen oihartzunak eta aipamenak tartekatzen ditu bere kontaketan. Ez dakigu Egeria aberrira itzuli zen ala ez Ekialdeko leku horiek guztiak bisitatutakoan; Egeriaren lana gorde duen eskuizkribuak hasierako eta amaierako folioak falta ditu, eta, heldu zaigun lanaren zatian behintzat, Egeriak ez du aberrira itzuli izanaren berri ematen.

4. Radegunda, Zesarea, Baudonivia, Brunilda, Eukeria eta Hertxenefreda

VI-VII. mendeetan, frankoen lurraldean, eite ezberdineko testuak idatzi zituzten zenbait emakume; idazki horien artean, gutunak dira nagusi, baina bizitza bat eta poema satiriko bitxi bat ere badira tartean.

4.1. Radegunda

Bizi: ca. 522-587.

Turingiako errege Bertarioren (ca. 510-525) alaba izan zen Radegunda —ez daukagu amaren berri—. Haren osaba Hermanfridok (ca. 510-531) —aitaren anaiak— aita hil zuen, eta Radegundaren ardura hartu zuen. Beranduago, Klotario I.a errege merovingioak (511-558) Hermanfrido garaitu zuen, eta bere gortera

11. Maravalen (1982) lanetik atera dut latinezko testua; euskarazkoa, berriz, López Las Herasenetik (2022b, 80. or.).

eraman zuen Radegunda; Klotariok kristautasunean hezi zuen Hermanfridoren iloba, eta, 540an, harekin ezkondu zen —Radegundaz gain, gutxienez beste bost emazte ere eduki zituen Klotariok—. Handik urte batzuetara, Radegundak gortetik ihes egitea lortu zuen, eta Elizan bilatu zuen babesa; 560. urte inguruan, Poitierseko Gurutze Santuaren monasterioa izango zena sortu zuen, eta bertako abadesa izan zen. Bizimodu aszetikoa eramateagatik eta sarritan baraualdiak egiteagatik egin zen ezagun¹².

Poitierseko monasterioan zegoela, bertsoak trukatu zituen Venantzio Fortunato poeta kristauarekin (ca. 536-610). Radegundak ondutako bertso horiek ez zaizkigu heldu; bai, ordea, berak idatzitako gutun poetiko batzuk: eskutitz horietan, bere lehengusu Amalafredo errege turingiarrari —Hermanfridoren eta haren emazte Amalabergaren semeari—, Amalafredoren seme Artatxisi, eta Justino II.a eta Sofia enperatrizari zuzentzen zaie¹³.

561. urtearen ondoren bere lehengusu Amalafredori idatzitako gutunaren pasarte bat irakurriko dugu jarraian (*De excidio Thoringiae*, 31-54). Senideek Turingian jasandako zorigaitzetako batzuk gogora ekarri ostean, bere samina eta bakardadea adierazten ditu Radegundak bertan, eta maitasunezko hitzak eskaintzen dizkio lehengusuari¹⁴:

non aequare queo vel barbara femina fletum cunctaque guttarum maesta natare lacu. quisque suos habuit fletus, ego sola sed omnes: est mihi privatus publicus ille dolor.	
consuluit fortuna viris quos perculit hostis; ut flerem cunctis una superstes ago.	35
nec solum extinctos cogor lugere propinquos: hos quoque, quos retinet vita benigna, fleo, saepe sub umecto conlidens lumina vultu; murmura clausa latent nec mea cura tacet.	40
specto libens, aliquam si nuntiet aura salutem, nullaque de cunctis umbra parentis adest. cuius in aspectu tenero solabar amore solvit ab amplexu sors inimica meo.	
an, quod in absenti te nec mea cura remordet, affectum dulcem cladis amara tulit?	45
vel memor esto, tuis primaevae qualis ab annis, Hamalafrede, tibi tunc Radegundis eram, quantum me quondam dulcis dilexeris infans et de fratre patris nate, benigne parens.	50

12. Besteak beste, Radegundaren baraualdien berri ematen dute, bai Baudoniviak idatzitako Radegundaren bizitzak —ikus aurrerago—, bai XIII. mendean atondutako *Urrezko legenda* deritzonak (Milagros-Garretas, 1990, 58. or.). Baudoniviak baino lehenago, Radegundaren beste bizitza bat idatzia zuen Venantzio Fortunatok; Kruschek (1888) argitaratu zituen Radegundaren bi bizitza horiek. Haien berri eta merovingioen garaiko beste emakume santu batzuen bizitzaren berri ematen dute, adibidez, Macnamara *et alik* (1992).

13. Leok (1881, 271-279. or.) argitaratu zituen testu horiek. Aipatutako hiru gutunez gain, Radegundak «apezpiku» (*episcopis*) batzuei prosaz idatzitako gutun bat ere argitaratu da (PL, 71, 522-526. zut.).

14. Leoren (1881, 272. or.) edizioari jarraikiz ematen dut latinezko testua.

quod pater extinctus poterat, quod mater haberi,
 quod soror aut frater tu mihi solus eras.
 prensa piis manibus heu blanda per oscula pendens
 mulcebar placido famine parva tuo.

Ez naiz gai, emakume barbaroa naizen hau, ez nire malkoak ahitzeko,
 ez tanta horien guztien laku goibelean igeri egiteko.
 Nork bere malkoak ditu, baina nik, bakarrik, guzti-guztiak ditut.
 Samin hori pribatua eta publikoa da niretzat.
 Patuak babestu ditu etsaiak eraitsi dituen gizonak. 35
 Guztiengatik negar egin nezan atera naiz bizirik, ni bakarrik.
 Eta ez nago hildako ahaideak deitoratzera behartuta soilik;
 bizitza adeitsuak eusten dituen horiengatik ere egiten dut negar,
 begitarte hezearen azpian begiak mailatuz sarritan;
 ezkutuan daude nire barne-marrumak, baina ez da isiltzen nire barne-kezka. 40
 Adi nago, irrikaz, aireak diosalik ekarriko ote didan,
 baina, ahaide guztien artetik, itzalik ere ez zait gerturatzen.
 Bere maitasun samurrez aurrez aurre kontsolatzen ninduen hura
 nire besarkadatik aldendu du zori etsaiak.
 Zure absenzian nire kezka artekatzen ez zaituelako 45
 eraman al du ezbehar latzak zure maitasun ezitia?
 Gogora ezazu nola zure bizitzaren lehenengo urteetan,
 Amalfredo, zure Radegunda nintzen,
 zenbat maite ninduzun orduan, ume ezti
 eta nire aitaren anaiaren seme horrek, ahaide adeitsu horrek. 50
 Zu bakarrik zinen niretzat ene aita zenak egin zezakeena,
 ama edo ahizpa edo neba izan zitekeena.
 Esku amultsu batek estututa, musu eztiak zirelakoan,
 zure hitz atseginekin baretzen nintzen ni, artean txiki.

4.2. Zesarea

Bizi: VI. mendea (*fl. ca.* 550).

Arleseko monasterioko abadesa izan zen Zesarea. Radegundak Poitierseko monasterioa sortu zuenean, bertako bizimodua arautzeko erregela bat ezarri behar izan zuen, eta, hori dela eta, Radegundak berak eta Ritxilda izeneko Poitierseko beste lekaima batek Zesareari eskatu zioten Arleseko erregela bidal ziezaian. Zesareak gutun bat idatzi zien eskatutako erregelaren kopia batekin, eta, horrenbestez, Arleseko araudiaren arabera bizi ahal izan ziren Poitierseko monasterioan¹⁵.

Erregelaren kopiarekin batera bidalitako eskutitzean, Zesareak hainbat aholku ematen dizkie Radegundari eta Ritxildari, Eskritura Santuko pasarteak aipatuta. Besteak beste, Jainkoa maitatzeko eta Ebanjelioa irakurtzeko esaten die, ez baitago hori baino erregela hoberik¹⁶:

15. Zesarea honetaz gain, izen bereko beste abadesa bat izan zen Arleseko monasterioan; hain zuzen, Arleseko apezpiku Zesareoren arreba (475-527). Zesarea hori Marseillako monasterio batean hazi zen, eta, 512an nebak Arleseko monasterioa sortu zuenean, bertara joan zen, abadesa; Zesareoren arreba Zesareok berak idatzitako erregelaren arabera gidatu zuen Arleseko monasterioa (Thiebaux, 1987 [1994], 88. or.).

16. Gundlachen (1892) ediziotik ematen dut latinezko testua.

Diligite et timete Dominum, quia 'oculi Domini super timentes eum et aurea eius ad preces eorum'. Sit in vobis cor mundum, cor pacificum; estote mites et humiles, patientes, obediētes. Audite Dominum dicentem: [...] Deposuit potentes de sede et exaltavit humiles'. Licet sit sanctum et bonum et laudabile, quod regulariter vivere optetis; sed non est maior nec melior nec praeiosior nec splendidior ulla doctrina, quam evangelii lectio.

Maita ezazue Jauna, eta izan zaitezte zintzoak; izan ere, «zintzoengana ditu Jaunak begiak, haien deiak entzuteko adi belarriak» [Ps 34(33), 16]. Izan bedi zuen bihotza garbia, bakezalea; izan zaitezte atseginak eta ezerezak, pairakorak, esanekoak. Entzuzue zer dioen Jaunak: [...] «Ahaltsuak goi-postuetatik bota eta ezerezak gora jaso» [Lk 1, 52]. Erregelaren arabera bizi nahi izatea santua eta ona eta ohoragarria da, bai; hala ere, ez da dotrina handiagorik, ez hoberik, ez bikainagorik, ez ederragorik, Ebanjelioaren testua baino.

Ohiko aholkuez gain, gomendio pertsonalagoak ere ematen dizkie Zesareak bere gutunean. Arleseko abadesak bazuen, antza, Radegundaren baraualdien berri, eta bizimodu aszetikoegia eramateak zerkartzan arriskuez ohartarazi nahi izan zion Poitierseko abadesari:

Pervenit ad me, quod nimis abstineas. Totum rationabiliter fac, si tu mihi vivas et semper possis. Nam si per istam nimietatem cęperis infirmari, postea, quod Deus non faciat, necesse tibi erit, delicias requirere et extra horam accipere, et non poteris illas benedictas regere. Audi, quid dominus in evangelio dicat: 'Non quod intrat in os, quoinquinat hominem'; et apostolus: 'Rationabile sit obsequium vestrum'. Totum sic fac, domina, quomodo in regula habes quam expetisti, ut benedicatur et collaudetur Deus de tua bona conversatione, et sis forma fidelium, quia, 'qui fecerit et docuerit, hic magnus vocabitur in regno celorum'.

Jakin dut barau gehiegi egiten duzula. Egizu dena arrazoiz, baldin eta biziko bazara eta horretarako gai bazara. Izan ere, gehiegikeria horrengatik gaixotzen hasten bazara, behartuta egongo zara —Jainkoak ez dezala hori nahi— gutziak eskatzera eta egoki ez den unean horiek onartzera, eta ezin izango dituzu zure lekaimeak zuzendu. Entzuzu zer dioen Jaunak Ebanjelioan: «Gizakia ez du ahotik sartzen zaionak kutsatzen» [Mt 15, 11]; eta zer, apostoluak: «Eskaini opari arrazoizkoa Jainkoari» [Erm 12, 1]. Egizu dena, andrea, eskatu duzun erregelan daukazun bezala, Jauna bedeinkatua eta goretsia izan dadin zure tratu onaren bidez, eta fededunentzako eredu izan zaitezen; izan ere, «betetzen edota betetzen irakasten duena, handitzat hartuko du Jainkoak bere erreinuan» [Mt 5, 19].

4.3. Baudonivia

Bizi: fl. ca. 600.

Poitierseko Gurutze Santuaren monasterioko moja izan zen Baudonivia. Haren gaitasun apartagatik, monasterioko lekaimeek bera hautatu zuten Radegundaren —monasterioko fundatzailearen— bizitza idazteko.

Bizitzaren hitzaurrean, Baudoniviak apaltasunez hitz egiten du bere buruaz, eta gainerako moiei eskatzen die beren otoitzekin lagundu diezaioten ezarri dioten egitekoa betetzen¹⁷:

¹⁷. Kruschen (1888, 378-395. or.) edizioari jarraikiz ematen dut latinezko testua.

Cum sim ego minima omnium minimarum, quam ab ipsis cunabulis ante sua vestigia peculiarem vernulam familiariter enutrivit, [...] etsi non digno, devoto tamen eloquio benignissimae vestrae voluntati oboediens pareo, vestra me orationi iuvare peto, quae sum minus docta, plus devota. [...] (*Prologus*)

Berak¹⁸ sehaskatik bere agindupeko gisa hazitakoen artean, txikietan txikiena naiz ni [...]; hori dela eta, duintasunik gabeko baina debozior betetako hizkuntza baten bidez, zuen borondate txit onberari egiten diot men, eta eskatzen dizuet zuen otoitzekin lagundu diezadazuen, nire debozioa handiagoa baita nire jakintza baino.

Hitzaurrean bertan azaltzen du, halaber, hizkuntza zainduan baino areago hizkuntza trauksilean kontatuko dituela, bai Radegundaren egintzak, bai haren mirarietako batzuk:

Ergo, inspirante divina potentia, cui beata Radegundis placere studuit in saeculo et cum quo regnat post saeculum, non solito, sed rustico temptamus de his quae gessit sermone appetere et de multis eius miraculis pauca complectere.

Hortaz, Jainkoak inspiraturik, zeinari Radegundak atsegin eman nahi izan baitzion mundu honetan eta zeinarekin agintzen baitu hurrengoan, saiatuko gara azaltzen, ez hizkera dotorean baizik eta trauksilean, hark zer egin zuen, eta laburtzen hark egin zituen mirari ugarietako gutxi batzuk.

Horrenbestez, Radegundaren dohainak eta hark egindako mirariak laudatzen ditu bizitzan zehar, eta haren bizimodu eta izaera eredugarriaren berri ematen du tarteka:

Quis enim eius patientiam, quis caritatem, quis fervorem spiritus, quis discretionem, quis benignitatem, quis zelum sanctum, quis iugem meditationem die noctuque in lege Domini poterit explicari? [...] Numquam de ore illius detractio, numquam mendacium, numquam maledictum contra qualemcumque personam processit; et non solum non detraxit cuiquam, sed nec detrahentem patienter audivit. Pro persequentibus se semper oravit et orare docuit.

Nork azaldu lezake haren pazientzia, nork haren karitatea, nork haren espirituaren jaiera, nork haren zuhurtasuna, nork haren ontasuna, nork haren arreata santua, nork haren etengabeko —gau eta eguneko— meditazio luzeak Jaunaren legeari buruz? [...] Inoiz ez zen haren ahotik irten inolako gutxiespenik, inolako gezurrik, inolako irainik inoren kontra; eta, inor ere ez gutxiesteaz gain, beste norbait gutxiesten zuen inori ere ez zion entzun. Beti egin zuen otoitz jazarleen alde, eta besteei ere hala egiten irakatsi zien.

Bukaera aldera, eskaera hau egiten dio Baudoniviak Radegundari: jarraitu dezala, zerutik, monasterioan dauden lekaimeak bide onetik gidatzen:

O piissima domina, obtinuisses cum caeli Domino, ut ante te oves quas congregaveras direxisses; tu pastorem bonum sequens, gregem Domino tradidisses

Andre txit jainkozale hori, lortuko ahal duzu, zeruko Jaunarekin batera, elkartu zenituen ardiak aurretik gidatzea! Lortuko ahal duzu, artzain onari jarraituz, artalde Jaunarengana eramatea!

18. Radegundak.

4.4. Brunilda

Bizi: VI-VII. mendea (*fl. ca.* 585).

Atanagildo eta Gosvinta errege-erregina bisigodoen alaba zen Brunilda. Gurasoek arianismoan hezi bazuten ere, katolizismora bihurtu zen Austrasiako errege merovingio Sigebertorekin ezkondu zenean, 566. urtean. Gobernuari zegozkion kontuez arduratu zen, bai eta Txildeberto —Txildeberto II.a izango zena (575-595)—, Ingunda eta Klodosinda seme-alaben hezkuntzaz ere.

Brunildak idatzitako zenbait gutun iritsi zaizkigu; kontu ofizialak ez ezik, adierazpen oso pertsonalak ere irakur daitezke horietako batzuetan. Horren erakusgarri da 585. urtean idatzitako gutun bateko pasarte hau; bertan, Anastasia enperatriz bizantziarrari zuzentzen zaio Brunilda. Pasartearen ulertzeko, datu hauek izan behar ditugu kontuan: Brunildaren alaba Ingunda Hermenegildo printze bisigodoarekin ezkondu zenean, arianismotik kristautasunera konbertitu zen senarra; horrek biziki haserrearazi zuen Leovigildo erregea —Hermenegildoren aita, 569-586 urteak inguruan errege izan zena—, eta semea hilarazi zuen. Orduan, Galiara itzultzen saiatu zen Ingunda, Atanagildo seme jaioberriarekin, baina bizantziar armadak gatibu hartu zuen bidean. Maurizio enperadore bizantziarrak (582-602) Txildebertok bere armada Italiara bidal zezan nahi zuen, lombardiarren kontra borrokatzeko, eta, Txildebertoren arrebaren eta ilobaren bahiketaren bidez, enperadore bizantziarrak horretara behartu nahi zuen Txildeberto; alabaina, Atanagildo soilik heldu zen Konstantinoplara, Ingunda bidean hil baitzen. Gutun honetan, iloba Galiara bueltan bidaltzeko eskatzen dio Brunildak Anastasiari, erregina bizantziarraren seme Teodosio (590-602) aipatuta¹⁹:

Et quia, augusta tranquillissima, casu faciente, parvuli nepotis mei didicit peregrinare infantia et ipsa innocentia annis teneris coepit esse captiva, rogo per redemptorem omnium gentium, sic vobis non videatis subtrahi piissimum Theodocium, nec ab amplexu matris dulcis filius separetur, sic vestra lumina semper exhilaret sua praesentia, simul et matris viscera augusto delectentur de partu: ut iuveatis agere, favente Christo, qualiter meum recipere merear parvulum, in amplexu refrigerentur viscere, quae de nepotis absentia gravissimo dolore suspirant, ut, que amisi filiam, vel dulce pignus ex ipsa, quod mihi remansit, non perdam, adusque de morte geniti crucior, relever per vos cito nepote redeunte captivo: quatinus, dum me dolentem atque illum innocentem respicitis, et de Deo, qui est universalis redemptio, mercedem gloriae recipiatis, absoluto captivo, et inter utramque gentem per hoc, propitiante Christo, caritas multiplicetur et pacis terminus extendatur.

Eta, enperatriz txit baketsu hori, zoriaren halabeharrez ene iloba txikiaren gaztetasunak atzerrira bidaiatu behar izan duenez eta haren xalotasuna adin samurrean gatibu egin dutenez, herri guztien Erredentorearen izenean errege egiten dizut eta, ordainetan, opatzen dizut zure Teodosio txit jainkozalea zure aldetik kentzen ez ikustea eta zure semea amaren besarkada gozotik ez bereiztea, eta haren presentzia zure begiek diz-diz egitea eta orobat amaren barrenak erditze inperialagatik atsegin hartzea; errege egiten dizut Kristok lagunduta egin dezazula egin beharrekoa nire txikia bueltan jaso dezadan, haren besarkadarekin lasaitu dadin nire barrena, zeinak samin aski latz batez intziri egiten baitu ilobaren absentiagatik; ez dezadan gal nik, alabaz gabetu naizen honek, geratu zaidan haren erakusgarri gozoa ere, eta, alabaren heriotzagatik oinazetzen naizen artean, lasaitasuna hartu

19. Dronkeren (1984, 288-289. or., 99. oh.) lanetik aipatzen dut latinezko testua.

dezadan zure bitartez iloba gatibua nigana arin itzulita; nire oinazeari eta haren xalotasunari begiratzun diezun bitartean, Jainkoarengandik, zeina erredentzio unibertsala baita, loriaren saria jaso dezazun gatibua askatuta, eta, hori eginez, Kristoren laguntzarekin maitasuna ugaritu dadin eta bakearen mugak zabaldu daitezen alde bateko eta besteko herrien artean.

Estiloari erreparatuta, nolabaiteko konplexutasuna erakutsi nahi du testu horrek, idazki ofizialei zegokien bezala. Hala ere, ezin daiteke esan testu bikaina denik sintaxiari dagokionez; izan ere, argitasuna baino areago, emozioa da nagusi bertan, ama gisa —eta ez erregina gisa— zuzentzen baitzaio Brunilda Anastasiari.

4.5. *Eukeria*

Bizi: VI. mendea.

Radegunda bezala, Eukeria ere izan bide zen Venantzio Fortunatoren inguru hurbilekoa. Eukeriaren senarra Dinamio Marseillakoa izan zen, Txildeberto II.aren agindupean gobernadore izatera heldu zena. Datu horiek alde batera utzita, ezer gutxi dakigu emakume honi buruz.

Eukeriaren poema aski satiriko bat heldu zaigu, baina ez dakigu zein den idazki horren testuingurua —lagunarteko jolas literarioa ote?—. Bertan, «trauskila eta morroia» den inoren maitasuna baztertzen du Eukeriak, naturako bat-egite ezinezko (*adynata*) ugari aipatuta; poemaren goren puntua azken bertsoan heltzen da, Eukeriak bere kasua aipatzen duenean. Hona hemen testua²⁰:

Jungatur nunc cerva asino, nunc tigris onagro;
Jungatur fesso concita dama bovi;
Nectareum vitient nunc lasera tetra rosatum,
Mellaque cum fellis sint modo mixta malis;
Gemmantem sociemus aquam luteumque barathrum,
Stercoribus mixtis fons eat irriguus;
Praepes funereo cum vulture ludat hirundo;
Cum bubone gravi nunc philomela sonet;
Tristis perspicua sit cum perdice cavannus,
Junctaque cum corvo pulchra columba cubet:
Haec monstra incestis mutant sibi tempora fatis;
Rusticus et servus sic petat Eucheriam.

Batu dadila oreinemea astoarekin, tigrea basastoarekin:
batu dadila adarzabal arina idi akituarekin;
gal dezatela erretxina nazkagarriek nektar gisako ardo gorria,
eta nahas dadila ezti-ura sagar mingotsekin;
elkartu dezagun diamanteen gisako ura lupetz lohiarekin;
simaur nahasietatik jaria dadila iturri urtsua;
jolas dadila enara bizkorra putre hilgarriarekin;
abes dezala urretxindorrek hontz tristearekin;
egon dadila gau-hontz goibela eper argiarekin,

20. Cabaret Dupatyren (1842, 412. or.) lanari jarraikiz ematen dut latinezko testua. Beranduagokoak izan bide diren beste bertso batzuen ondoren transmititu dira Eukeriaren bertso hauek (Homeyer, 1979, 185-186. or., *apud* Dronke, 1984, 289. or., 105. oh.).

eta lo egin dezala uso ederrak belearekin bat eginda:
alda dezatela izugarrikeria horiek patuaren joana;
hala erakar dezala traukilak eta morroiak Eukeria!

4.6. Hertxenefreda

Bizi: VII. mendea.

Ez dakigu ia ezer Hertxenefredaren bizitzari buruz. Haren seme ziren Rustiko († 630) eta Desiderio († 655) Cahorseko apezpikuak, Klotario II.aren (613-629) gortean hazi zirenak. Gerora, Cahorseko apezpiku izendatu zuten Rustiko, baina, 630. urteko altxamendu batean, erail egin zuten, eta Desideriok bete zuen anaiaren kargua.

Hertxenefredak Desideriori idatzitako hiru gutun heldu zaizkigu²¹. Horietan guztietan, hainbat aholku moral eta espiritual ematen dizkio semeari. Azken gutuna, Rustiko anaiaren erailketaren ostean igorri zion; semearen heriotzak eragindako samina azaltzeaz gain, kontuz ibiltzeko eskatzen dio amak Desideriori, tonu tragiko samarrean. Hona hemen hirugarren gutun horren hasiera²²:

Iam credo tibi nuntiatum esse, qualiter dulcissimus germanus tuus domnus Rusticus episcopus a perfidis ecclesiae incolis interfectus sit. Propterea, dulcissime fili, dum et pater tuus iam discessit, et Siagrius frater tuus hinc migravit, tu uiriliter istam causam proseguere facias, ut grandis exemplus pro hoc fiat. Ego infelix mater quid agam, cum fratres tui iam non sunt? Si tu discesseris, ego orbata absque liberis ero. Sed tu, piissime pignus, mihi dulcissime, sic te iugiter praecaue, ut dum solatia fratrum perdidisti, te non perdas, ut ne, quod absit, in interitum uadas.

Uste dut dagoeneko badakizula nola erail duten Eliza hartu zuten gizon desleialek zure anaia kutuna, Rustiko apezpiku jauna. Hori dela eta, ene seme kutuna, zure aita ere dagoeneko zendu denez eta zure anaia Siagrio hemendik joan denez, jarrai ezazu kontu honekin gizonki, eredu handia atera dadin bertatik. Zer egingo dut nik, zorigaiztoko ama honek, zure anaiak dagoeneko ez dauden egoera honetan? Hilko bazina, seme-alabarik gabe geratuko naiz. Baina zuk, ene berme txit leialak, txit kutunak, jagon ezazu etengabe zeure burua, anaien kontsolamendua galdu duzun arren ez dezazun zeure burua gal, ez zaitezen —ez dakizula hori gerta— hondamenera joan.

5. Berthgyth eta Hugeburc

Moja misiolari anglo-saxoiek VIII. mendean zehar idatzitako zenbait gutun gorde ditugu; Dronkeren (1984, 30. or.) esanetan, Berthgythek idatzitakoak dira «kartsuenak eta sentikorrenak»²³. Garai bertsuan, Hugeburc izeneko beste elizemakume anglo-saxoi batek bi elizgizonen bizitzak idatzi zituen.

21. Kruschek (1902, 569-571. or.) editatu zituen hiru gutun horiek.

22. Kruschen (1902, 570. or.) lanetik aipatzen dut latinezko testua.

23. San Bonifazioren (ca. 675-754) korrespondentziaren artean, santu horrekin gutunak trukatu zituzten zenbait moja misiolari anglo-saxoien testuak heldu zaizkigu. Dronkek (1984, 30. or.) emakume horien izenak («Aelfled, Egburg, Eangyth, Bugga, and Lioba») besterik ez du aipatzen, baina esaten du kristauen gutunetan —Jeronimorenetan, esaterako, modu oso nabarmenean— ohikoak diren samurtasuna eta erregu erretorikoak ageri direla lekaime anglo-saxoi horiek idatzitako eskutitzetan.

5.1. Berthgyth

Bizi: VIII. mendea.

Berthgyth Ingalaterran jaio bide zen. Moja izan zen, eta oso hezkuntza ona jaso zuen; hala, San Bonifaziok eskatuta, Turingiara joan zen bere ama Cynehildekin batera, irakasle aritzeko. Ama hildakoan, 770-780 urteak bitartean, bakar samar ikusi zuen bere burua, eta hiru gutun idatzi zizkion bere neba Balthardi —bere hurbileko ahaide bakarrari—, bisitatu zezala eskatuz. Gutunotan, hizkera soila erabiltzen du, baina ez ditu erabat alde batera uzten kristauen eskutitz batzuetan ohikoak diren zenbait baliabide erretoriko, lehenengo gutunaren pasarte honetan ikus daitekeen bezala²⁴:

Quid est, frater mi,
quod tam longum tempus intermisisti,
quod venire tardasti?
Quare non vis cogitare,
quod ego sola in hac terra
et nullus alius frater visitet
me, neque propinquorum aliquis ad me veniet?
[...]
O frater, o frater mi,
cur potes mentem parvitatibus meae
adsiduae merore,
fletu atque tristitia
die noctuque
caritatis tuae absentia adfligere?
Nonne pro certo scies, quia viventium omnium
nullum alium propono tuae caritati?
Ecce non possum omnia per litteras tibi indicare.
Iam ego certum teneo, quod tibi cura non est de mea parvitate.

Zergatik, ene neba,
utzi duzu igarotzen hainbeste denbora,
berandutu zara hainbeste?
Zergatik ez duzu kontuan izan nahi
bakarrik nagoela lur honetan
eta beste ezein nebak ez nauela bisitatuko,
eta ahaiderik ez dela nigana etorriko?
[...]
Neba, ene neba,
nolatan atsekabetu dezakezu txiki honen burua
etengabeko saminarekin,
negar eta tristurarekin
gau eta egun
zure maitasunaren absentiaren bidez?
Ez al dakizu ondo baino hobeto bizidun guztien artean
ez dudala beste inor zure maitasunaren aurretik jartzen?
Hara: ezin dizut guztia gutunen bidez adierazi.
Dagoeneko badakit txiki hau ez zaizula ardura.

24. Dronkeren (1984, 289. or., 111. oh.) lanari jarraikiz ematen dut latinezko testua. Lerroen arteko etenek baliabide erretorikoak nabarmentzen dituzte; baliabide horiekin lotuta, VIII. mende bukaerako poesiari buruzko jakinarri gehiago ematen ditu, kasurako, Godmanek (1985).

Arrebaren bigarren gutuna jaso ostean, bihotza Jainkoari osoki emateko erantzun omen zion Balthardek, hori ematen baitu aditzera Berthgythek bere hirugarren gutunean. Arrebak, hala ere, ez zion neba maitatzeari utzi²⁵:

Et nunc fateor tibi quod implere desidero auxiliante domino omnia quae praecepisti mihi, si dignetur voluntas tua venire ad me, quia ullomodo fontem lacrimarum adquiescere non possum. Quando video et audio alias ituras ad amicos suos, tunc recolo quod a parentibus in iuventute derelicta fui et sola hic permansi. Et tamen domino derelicta non fui, sed gratias ago deo de inmensa eius pietate [...].

Et nunc, frater mi, adiuro te atque deprecor ut auferas tristitiam ab anima mea, quia valde nocet mihi. Dico enim, quamvis unius diei spatium sit et iterum perrexeris iubante domino in voluntate tua, tamen recedit tristitia ab anima mea et dolor de corde meo. Sin autem displicet tibi implere petitionem meam, tunc deum testem invoco quod in me numquam fit derelicta dilectio nostra.

Eta, orain, zera jakinarazten dizut: Jainkoaren laguntzarekin, eskatu zenidan guztia bete nahi dudala, baldin eta nigana etortzeko borondatea izango bazenu, ezin baitut inola ere nire malkoen jariora baretu. Ikusten eta entzuten dudanean beste emakume batzuk beren lagunengana²⁶ joaten direla, gogora etortzen zait gurasoek gaztea nintzenean abandonatu nindutela, eta bakarrik geratu nintzela hemen. Eta, hala ere, Jaunak ez ninduen abandonatu, eta eskerrak ematen dizkiot Jainkoari haren ontasun handiagatik [...].

Eta orain, ene neba, arren eskatzen dizut eta erregu egiten dizut tristura hau ezabatu dezazula nire arimatik, gehiegi mintzen bainau. Eta esan egiten dizut: egun bakarrerako izango balitz ere eta, Jainkoak zure borondateari hala aholkatuta, ondoren joango bazina ere, hala ere, alde egingo luke tristurak nire arimatik eta saminak nire bihotzetik. Aitzitik, nire eskaria betetzea ez baduzu atsegin, Jainkoari dei egiten diot ikus dezan nik ez dudala inoiz gure maitasuna abandonatuko.

5.2. Hugeburc

Bizi: VIII. mendea (*fl. ca.* 778).

Hugeburc anglo-saxoia Heidenheimeko abadesa izan zen. Wilibaldo Eichstätteko apezpikuaren eta Winebaldo Heidenheimeko abadearen bizitzak idatzi zituen, eta, sarrera gisa, hitzaurre moduko bat xertatu zuen Wilibaldoren bizitzaren aurretik²⁷. Atariko testu horretan, elizgizon katolikoei zuzentzen zaie, eta, emakumeek idatzitako zenbait testutan ohikoa den bezala —hala egiten dute, esaterako, Dhuodak eta Rosvitak—, ezjakintzat aurkezten du bere burua. Nolanahi ere, jarraian, Hugeburcek sendo adierazten du lan hori idaztea erabaki duela, eta hezkuntza-maila altua duela erakusten saiatzen da, hitz arraro eta esaldi konplexu —baina ez beti zuzen— ugariz jositako idazkera hanpatu baten bidez. Horren erakusgarri da, hein batean, pasarte hau²⁸:

25. Mauseren (2017, 18-19. or.) lanari jarraikiz ematen dut latinezko testua.

26. Maskulinoan.

27. Holder-Eggerrek (1887, 86-88. or.) editatu zuen hitzaurre hori, aipatutako bi bizitzaren edizioan.

28. Holder-Eggerren (1887, 86-87. or.) ediziotik ematen dut latinezko testua, salbuespen batekin: *corruptibilia* beharrean, aparatu kritikoan ageri den *corruptibilis* hobetsi dut, Dronkeren (1984, 34. or.) itzulpenarekin bat.

Istis omnibus istis sub sacre legis moderamine manentibus ego indigna Saxonica de gente istic uenientium novissima et non solum annis, sed et etiam moribus, et de illorum comparatione contribulum meorum quasi omuncula, ego quidem vobis religiosis ac catholicis viris, caelestis bibliothecae ministris, ob utilitate memoriae pauca perstringendo paulatim de primordiale vitae eius venerandi viri Willibaldi prochemio disputare decreveram. Sed tamen precipue ego feminea fragilique sexus inbecillitate corruptibilis nulla prerogativa sapientiae suffultus aut magnarum virium industria elata, sed spontaneo voluntatis meae violentia coacta, velut quadam ignara parva de pectoris prudentia pauca decerpens et ex multis frondosum frugiferumque arborum florum varietate honustorum exiguo qualibet arte saltim extremis in ramis vestrae memoriae coaptos pauca excerpere, conpagare edissereque me libet.

Lege santuaren agindupean hemen zaudeten guztioi, nik, ohorerik merezi ez duen honek, herri anglo-saxoikoa eta hona etorritakoen artean berriena naizen honek —ez bakarrik urteei dagokienez, baizik eta baita ohiturei ere—, eta nire erlijio-kide horien aldean gizaki-mengela bat baino ez naizen honek, erabaki dut zuei, elizgizon eta gizon katolikooi, zeruko liburutegiaren zerbitzarioi, hitzaurre batean poliki mintzatzea Willibaldo gizon beneragarriaren bizitzaren egintzarik behinenei buruz, hitz gutxitan kontatuz memoriaren onurarako diren gauza batzuk. Baina, lehenbizi, nik, nire sexuaren ahultasun femenino eta hauskorrarengatik galkorra naizen honek, ez jakituriaren pribilegioan sostengaturik edo bertute handien lanerako gogoak goraturik baizik eta nire gogoaren indarkeriak borondatez bultzaturik, ezjakin kaskar baten moduan, gauza gutxi batzuk hautatu ditut bihotzaren zentzutasunetik, eta, trebetasun eskasarekin, askotariko lorez betetako arbola hostotsu eta emankor ugaritik —gutxienez kanpoko adarretatik— ideia gutxi batzuk bildu, batu eta erakutsi gura ditut, zuek gogoan gorde ditzazuen.

6. Dhuoda

Bizi: IX. mendea (fl. 841-843).

Dhuoda garai nahasietan bizi izan zen²⁹. Karlomagno († 814) hil ondoren, haren seme Luis I.a († 840) —Ludoviko Pio— izan zen Inperio Karolingioko enperadorea eta frankoen erregea, baina, Luis hildakoan, haren semeak elkarren kontra borrokatu ziren, harik eta 843ko abuztuan Verdungo Ituna sinatu zuten arte. Itun horren bidez, hiru zatitan banatu zuten inperioa: Lotario I.ak enperadore-titulua eta *Francia Media* delakoa —alegia, frankoen erdialdeko lurraldeak— eskuratu zituen; Karlos II.ak —Karlos Burusoilak—, *Francia occidentalis* delakoa —mendebaldeko lurraldeak— eta Hispaniako Marka —*Franciako* eta Pirinioetako hegoaldeko lurraldeen arteko konderrien multzoa—; Luis II.ak —Luis Germanikoak—, berriz, *Francia orientalis* delakoa —Germaniako lurraldeak—. Testuinguru horretan, nobleziako kide askok Luis I.aren semeetako baten alde egin zuten; beste batzuk, ordea, boterea beren artean banatzen saiatu ziren.

Ludoviko Pionen heriotza eta Verdungo Ituna bitartean idatzi zuen Dhuodak *Liber manualis Dhuodane quem ad filium suum transmisit Wilhelmum* izeneko lana (*Dhuodaren eskuliburua*, *Dhuodak bere seme Gileni bidali ziona*). Bertan, bere bizitzari eta familiari buruzko zenbait zehaztasun ematen dizkio semeari, kronika edo agiri

29. Dhuodaren gainean, argigarriak dira Richéren (1975), Dronkeren (1984, 36-53. or.), Marchanden (1984), Rivera Garretasen (1990, 62-79. or.), Thiebauxen (1998) eta Salrachén (2020) lanak. Richéren (1975) ediziotik aipatuko ditut Dhuodaren *Liber manualiseko* pasarteak.

genealogiko ofizial bat —eta ez, berriz, testu pertsonal pribatu bat— idazten arituko balitz bezala. Semeari egindako kontakizun horretatik dakigu Dhuoda Septimaniako duke —eta Karlomagnoaren ahaide— Bernardorekin³⁰ ezkondu zela, 824. urtean, Akisgraneko jauregi inperiallean (*Praefatio*, 1-6). Dhuodaren senarra Luis I.aren konfiantzazko gizona izan zen, eta enperadorearen zerbitzura aritu zen, bai gorte inperiallean, bai handik urrun; 826-827 urteak bitartean, esaterako, Ludoviko Piok Hispaniako Markatik hurbil piztutako matxinada bat baretzera bidali zuen Bernardo, eta, geroago, Septimaniako eta Hispaniako Markako muga zaintzeko zeregina izan zuen Dhuodaren senarrak, *marchio* gisa. Bernardok etxeko ondasunen kargu utzi zuen Dhuoda, Uzèsen, Dhuodak berak pasarte honetan azaltzen duen bezala: «Luza-ro bizi izan naizenez aipatutako hiri honetan nire jaunaren aginduz [...]»³¹. Dhuodak onartu egin zuen, nolabait, Bernardok inposatutako egoera eta egitekoa, senarra berarengandik «banatu ez» zedin, «besteren batzuek egin ohi zuten bezala»³².

Nahiz eta hasieran Dhuodaren senarra Luis I.aren hurbileko pertsona izan zen, Bernardok enperadorearen konfiantza galdu zuen 829. urtean, haren seme Karlos babesteko kargua jaso eta gutxira. Zeregin horrek Judit enperatrizarengandik —Ludoviko Pioren emaztearengandik— hurbil egotea eskatzen zuen halabeharrez, eta badirudi berehala zabaldu zela Bernardo Juditen maitale zelako zurrumurrua; hori dela eta, Dhuodaren senarrak gortetik ihes egin behar izan zuen. Luis I.a hildakoan, Lotarioren alde egin zuen, baina, 841eko ekainaren 25ean, Fontenoy-en-Puisayeko guduan, Karlos Burusoilak eta Luis Germanikoak Lotario garaitu zuten. Karlosen garaipenaren berri izan bezain laster, Bernardok Karlosen —ordura arteko etsaiaren— esku utzi zuen bere seme nagusi Gilen, leialtasun-froga gisa. Handik gutxira, bere bigarren seme jaioberria ere amaren ondotik aldenarazi zuen eta, Uzèseko apezpikuaren bidez, beregana eramanarazi zuen, Akitaniara.

841eko azaroaren 30ean, seme nagusiaren hamaseigarren urtebetetze-egunaren biharamunean, Dhuoda *Liber manualis* idazten hasi zen. Lanaren sarreran (*Praefatio*, 6-9, 15-22), bere bi semeak aipatzen ditu: batetik, Gilen, 826ko azaroaren 29an jaioa —Dhuodak ez du esaten non—; bestetik, bigarrena (*secundus*), 841eko martxoaren 22an Uzèsen jaioa eta, beraz, liburua idazten hasteko unean hilabete batzuk baino ez zituena —Dhuodak ez du bigarren seme hori izenez aipatzen, aitzak bataiatu gabe eraman baitzuen etxetik eta, hori dela eta, amak ez baitzekien haren izena Bernardo zela³³—. Bere jaiotze-datari eta jaioterriari buruz, Dhuodak ez du daturik ematen; badakigu haren leinua noblea zela, baina ez dago argi nongoa zen. *Franciako* iparraldean aurkitu dira Dhuodaren ponte-izenaren antza duten lekukotasun gehien (*Duda*, *Tota*, *Thuada* edota *Doda*), baina hegoaldean ere jasota dago *Doda*, eta

30. Zehazki, Karlomagnoaren lehengusua zen Bernardoren aita —Gilen Akitaniakoa (besteak beste, Tolosako kondea)—, eta, Septimaniako duke eta Tolosako konde ez ezik, Bartzelonako konde ere izendatu zuten Dhuodaren senarra. Narbona, Béziers, Nîmes edota Uzès barne hartzen zituen Septimaniako eskualdeak; Septimaniari —hala nola Hispaniako Markako lurraldeei— *Gothia* izena ere eman izan zaio, bertan bisigodoak bizi izan baitziren. Verdungo Itunak Karlos Burusoilaren esku utzi zuen Septimaniako eskualdea.

31. «Cum diu [...] sub iussione senioris mei, in praedicta [...] residerem urbe [...]» (*Praefatio*, 23-25).

32. «Ut [...] nec a me se separasset, sicut mos est in aliquis» (X, 4, 39-42).

33. Baliteke, bestalde, Dhuodak hirugarren alaba bat eduki izana, 844-845 urteak bitartean. Izan ere, Ademar Chabannesekoak idatzitako XI. mendeko kronika batean, Gilen Tolosakoaren arreba aipatzen da, eta litekeena da Gilen hori Dhuodaren seme Gilen izatea (Thiebaux, 1998, 7. or., 10. oh.).

*Liber manualis*eko pasarte batzuek ere aukera ematen dute pentsatzeko Dhuoda gaur egungo Frantziako hegoaldekoa edo Espainiako iparraldekoa izan zitekeela. Horrenbestez, adituak ez datoz bat Dhuodaren jatorriari dagokionez: zenbaitek argi ikusten dute haren ama-hizkuntza germanikoa zela eta Dhuoda frankoen lurraldeko iparraldekoa zela (Dronke, 1984, 37. or.); bada, ordea, Dhuodak hizkuntza erromantzeren bat hitz egiten zuela uste duenik ere (Riché, 1975, 38. or.) edota Akitaniako, Septimaniako edota Kataluniako nobleziako familiaren batean jaio zela pentsatzen duenik ere (Thiebaux, 1998, 8. or.)³⁴. Nolanahi ere, litekeena da 15-20 urte ingururekin ezkondu izana, eta, beraz, 806-811 urteak bitartean jaio izana; jaiotza-data hori ontzat emanez gero, pentsatzekoa da gutxi gorabehera 30-35 urte zituela semearentzako liburua idazten hasi zenean.

843ko otsailaren 2an amaitu zuen Dhuodak *Liber manualis* idazten. Hurrengo urtean, 844an, Karlos Burusoilak Bernardo hilarazi zuen, Frantziako Tolosan. Ez dakigu Gilenek aitaren exekuzioa bertatik bertara ikusi zuen ala ez, baina badirudi urte horretako ekainean bertan Karlos erregearen armadaren kontrako segada batean parte hartu zuela Akitaniako nobleziako beste kide batzuekin batera eta, 847an, Abd-ar-Rahman II. arekin batu zela erregearen kontra borrokatzeko. 848an, Gilenek eta bere kideek Bartzelona hartu zuten, baina Karlos Burusoilak urte horretan bertan —edo gutxi geroago— erail bide zuen Dhuodaren seme nagusia, hiri horretan. Itxura denez, bigarren semea, Bernardo, luzaroago bizi izan zen, nahiz eta haren bizitzaren inguruko datu asko mitoekin nahastuta heldu zaizkigun³⁵. Dhuodaren heriotzari dagokionez, ezer gutxi dakigu; bere epitafioa idatzita utzi zuen Dhuodak (Riché, 1975, 356-359. or.), baina ez dakigu epitafio hori inon zizelkatu zuten.

6.1. *Liber manualis*

Eskuliburu bat da *Liber manualis* delakoa; funtsean, hori da izenburuaren esanahia ('eskuliburu'), nahiz eta Dhuodaren garaian *manualis* hitza *speculum* sinonimotzat hartu zen (Riché, 1975, 12. or.). Antzinateetik landu zen *speculum principis* direlakoen generoa —Senekaren *De clementia* edota Plinio Gaztearen *Trajanoren panegirikoa* dira horien adibide batzuk—, baina, karolingioen artean, Alkuino Yorkekoa izan zen tradizio horren aitzindaria, *Liber de virtutibus et vitiis* lanarekin; izatez, Gido Britainiakoari zuzenduta zegoen liburu hori, baina gizon publiko orok jaso beharreko

34. Wikipediaren gaztelaniazko edizioan, Gaskoiniako —edo Baskoniako— Antso I.a Lope (edo Lupo Antso) dukearen alabatzat aurkezten da Dhuoda: «Nacida en una familia de la alta nobleza a principios del siglo IX (c.810), era hija de Sancho I López, duque de Gascuña (775-816), y de Ailona Aznárez de Aragón (hija de Aznar I Galíndez, conde de Aragón)» (Kontsulta: 2025/02/21). Katalanezko, frantsesezko edota ingelesezko edizioetan, balizkotzat aurkezten da datu hori: «hipotèticament filla de Sanç I Llop, duc de Gascunya (775-816) i d'Ailona Asnarès d'Aragó (filla d'Asnar I Galí, comte d'Aragó); «Elle est peut-être la fille du duc Sanche I^{er} Loup de Vasconie»; «It has been speculated that her unusual name is an attempt to render the Basque name Toda, and that she may have been daughter of Sancho I, Duke of Gascony» (Kontsulta: 2025/02/21). Edonola ere, ez dut datu hori aurkitu edizio horietan guztietan aipatutako erreferentzietan. Besteak beste Settipanik (2004) eta Lopez de Luzuriagak (2016) ematen dute karolingioen inguruko buruzagien arteko harreman korapilatsuen berri.

35. Besteak beste, Auverniako eta Tolosako konde izan bide zen Bernardo; haren seme —eta, horrenbestez, Dhuodaren biloba— izan zen Gilen I.a Akitaniako dukea —alegia, Gilen Errukitsua, Clunyko ordenaren sortzailea— (Riché, 1975, 21. or.; Thiebaux, 1998, Sarrera, 37. or.; Rivera Garretas, 1990, 68. or.; Salrach, 2020).

hezkuntzaren ispilu bilakatu zen. Dhuodaren garaiko *Francian*, zenbait elizgizonek eite horretako lan gehiago idatzi zituzten, errege nahiz laikoen betebeharrak kristauen gaineko aholkuak emateko xedearekin eta, nolabait, liskarrak nagusi ziren garai batean bakea berrezartzeko helburuarekin. Hezkuntza-gida eta eskuliburu horien testuinguruan kokatu behar dugu, bada, Dhuodaren *Liber manualis*.

Lan horrekin, jokabide onaren ispilu bat eskaini nahi zion Dhuodak semeari, eta, hala, senarrak betetzen uzten ez zion amatasuna ordeztzen saiatu zen hein batean (Rivera Garretas, 1990, 69. or.):

Licet sint tibi multa ad crescentium librorum uolumina, hoc opusculum meum tibi placeat frequenter legere, et cum adiutorio omnipotentis Dei utiliter ualeas intelligere. Inuenies in eo quidquid in breui cognoscere malis; inuenies etiam et speculum in quo salutem animae tuae indubitanter possis conspiciere, ut non solum saeculo, sed ei per omnia possis placere qui te *formauit ex limo*; quod tibi per omnia necesse est, fili Wilhelme, ut in utroque negotio talis te exhibeas, qualiter possis utilis esse saeculo, et Deo per omnia placere ualeas semper.

Sunt mihi curae multae, ad te, o fili Wilhelme, uerba dirigere salutis, inter quas ardens et uigil meus aestuat animus, ut tibi de tua, auxiliante Deo, natiuitate, in hunc codicem libelli ex meo desiderio habeas conscriptum, sicut in sequentibus est utiliter praeordinatum. (*Prologus*, 17-32)

Nahiz eta gero eta liburu gehiago egon zure esku, nahiko nuke atsegin dezazun nire lantxo hau sarritan irakurtzea eta Jainko ahalguztidunaren laguntzaz zure onerako ulertu ahal izatea. Bertan aurkituko duzu, laburturik, ezagutu nahi duzun edozer; orobat aurkituko duzu ispilu bat, zeinean zalantzarik gabe ikusi ahal izango duzun zure arimaren salbazioa, ahalmena izan dezazun osoki atsegin emateko, ez bakarrik munduari, baizik eta *lur-hautsez moldatu* [Has 2, 7] zintuen horri; behar-beharrezko duzu hori, ene seme Gilen, zeregin batean eta bestean aurkeztu dezazun zeure burua halako moldez non erabilgarri izan zaitezkeen munduarentzat, eta, beti, osoki eman diezaiokezun atsegin Jainkoari.

Kezka handia daukat, ene seme Gilen, zuri salbazio-hitzak zuzentzeko; horien artean, nire bihotz zoli eta kartsuak desira du zure jaiotzaren berri —zeina Jainkoaren laguntzaz jazo baita— izan dezazun nire borondatez idatzitako liburutikxo honetan, ondorengo lerroetan modu erabilgarrian jasota dagoen bezala.

Ohikoa zen emakume ikasiek seme-alaben hezkuntzaren kargu egitea —Judit enperatrizak berak Karlos Burusoilarekin egin zuen bezala—, eta Dhuodak ere zeregin aktiboa izan nahi zuen semearen hezkuntzan. Dena den, *speculum* gisako lan garaikideekin alderatuta, Dhuodaren liburuak baditu berezitasun batzuk, aparteko lekua ematen diotenak Goi Erdi Aroan idatzitako literaturaren barruan: batetik, Dhuoda bera ez zela elizemakumea, ezpada laikoa; bestetik, ama gisa idatzitako lana dela. Agian horren eraginez, emakumeen testuetan ohikoa den umiltasuna erakusten du bere *Liber manualis*en:

Certe et ego ipsa, considerans casum humanae fragilitatis meae, me reprehendi indesinenter non cesso, *cum sim misera, cinisque et pulvis*. Et quid dicam? Si patriarchae et prophetae, et ceteri sancti, a protoplasto usque nunc, eius non ualuere

plenius intelligere sacramentis documenta, quāto magis ego, exigua et infimi generis orta! Et, si ut ait Scriptura, *coelum et coeli coelorum eum* prae magnitudine *capere non possunt*, quid ego imperitissima ualeam dicere? (I, 1, 14-22).

Zalantzarik gabe, nik neuk, nire hauskortasun gizatiarraren egoera aintzat hartuta, ez diot uzten etengabe neure burua gaitzesteari, eskasa bainaiz, *hauts eta errauts besterik ez* [Has 18, 27]. Eta zer esan dezaket? Patriarkek eta profetek eta gainerako santuek, lehen gizakitik orain arte, sakramentuaren irakaspenak erabat ulertzea lortu ez badute, zenbat areago nik, ezdeusa eta genero baxuenetik jaiotakoa naizen honek! Eta, baldin eta, Eskritura Santuak dioen bezala, *zeru eta ortziaren zabalak*, haren handitasunagatik, *ezin* badute *eduki* [1 Erg 8, 27], zer esan dezaket nik, erabat ezjakina naizen honek?

Ama moduan idatzi arren, semearen zoriontasuna eta ongizatea zituen Dhuodak helburu, eta orduko gizarte aristokratiko eta patriarkalean gizonei zuzendu ohi zitzaizkien mezuak eta arau moralak errepikatzen ditu bere lanean: gizon kristau noble bati zegokion bezala, bizioen kontra borrokatzeko eta bertutez jokatzeko aholkatzen dio Dhuodak semeari, bai eta leial izateko ere, ez bakarrik aitari eta arbasoei (VIII, 14, 5-10) edota Karlos erregeari (*Praefatio*, 35-37; III, 4, 1-9), baizik eta batez ere Jainkoari, haren esku baitago salbazioa —lan osoan zehar errepikatzen den ideietako bat da hori—. Baliteke nolabaiteko mezu politikoa ezkutatuta egotea semeari zuzendutako hitz horien atzean; izan ere, Salrachén (2020) arabera, Dhuodak bazekien gortekoek ere *Liber manualisa* irakurriko zutela, eta, horrenbestez, zeharka, semeaz —eta baita senarraz ere— errukitzeko eskatzen ari zaio Dhuoda Karlos erregeari, Gilenen —eta haren leinuaren— leialtasunaren ordainetan.

Hizkuntzari dagokionez, bitxia da Dhuodaren lana latinez idatzita egotea, eta ez, berriz, garai hartako jendeak hitz egiten zuen hizkuntzan³⁶; latinez alfabetatzea elite pribilegiatu baten eskura zegoen bakarrik, baina, agian, Dhuodak pentsatu zuen Karlos Burusoilaren gortean hizkuntza hori ikastea lortuko zuela semeak. Ziurrenik, soldadutzat baino areago, letra-gizontzat irudikatzen zuen Dhuodak Gilen, eta, hari zuzendutako aholkuen artean Eskritura Santuetatik eta egile kristauen testuetatik ateratako etsenplu eta aipu ugari tartekatzeaz gain³⁷, behin eta berriro esaten dio liburu sakratuak irakurtzeko (II, 1, 5; IV, 1, 1, 40; III, 6, 16; V, 8, 54).

36. Latin idatzitik urrun samar zeuden garai hartako herri-hizkuntzak; horren adibide garbia da 842ko otsailaren 14an Luis Germanikoak eta Karlos Burusoilak sinatutako Estrasburgoko Zina —Lotario anaiaren kontrako aliantza—. Karlomagnoen biloba —eta Luis eta Karlosen lehengusu— Nitardok jasota utzi zuenez, Karlosek germanikoz (*Teudisca lingua*) egin zuen zina —Luisen aldeko herritarrek aditu zezaten—, eta Luisek hizkuntza erromantzez (*Romana*) —Karlosen aldekoek uler zezaten—: «Ergo 16. Kalend. Marcii Lodhuwicus et Karolus in civitate, quae olim Argentaria vocabatur, nunc autem Strazburg vulgo dicitur, convenerunt; et sacramenta, quae subter notata sunt, Lodhuwicus Romana, Karolus vero Teudisca lingua iuraverunt» (*Historiarum libri IIII*, III, 5; ikus Pertz, 1829, 665. or.). Latin idatziaren eta herri-hizkuntzen arteko urruntze-prozesuaren berri ematen dute, besteak beste, Wrightek (1982) eta Banniardek (1992).

37. Esaterako, Agustinen, Gregorio Handiaren edota Prudentzioren lanetatik ateratakoak —alegia, garai hartako aristokrata ikasiek sarri irakurtzen zituzten lanetatik hartutakoak—. Badirudi, hala ere, antologia edo bildumaren batetik bildu zituela Dhuodak etsenplu eta aipu horiek, eta ez, berriz, jatorrizko testuetatik (Riché, 1975, 35. or.).

Dhuodaren lanaren irakurketa hau egiten du Rivera Garretasek (1990, 68-69. or.):

Una lectura rápida del *Liber manualis* deja un sabor amargo a ideología patriarcal profundamente asumida, llena de fórmulas para mejor amar a Dios, al rey y al padre. Una lectura atenta produce, en cambio, la ambigua sensación de que Dhuoda no se acababa de creer lo que decía y decía que pensaba; pero lo dice y lo quiere creer porque sus hijos son hombres, como su padre, y ella quiere por encima de todo que vivan y que triunfen. [...] Ella escribe, en primer lugar, como madre que quiere que sus hijos sean felices; en segundo, como madre de hijos varones, lo cual dificulta que manifieste reivindicaciones de género; y, en tercer lugar, como noble, con unos intereses y con unas responsabilidades de clase determinados. Mi hipótesis es que la combinación de estos tres elementos (en el s. IX como en el s. XIX), difícilmente podría dar como resultado un producto abiertamente revolucionario.

Nolanahi ere, Dhuoda ez da Elizaren edota bestelako botereren baten mendeko moralista hutsa; nobleziako kide gisa, bere egoera eta betebeharrak onartu zituen, bai, baina, emakume eta ama moduan, samina eragiten zion horrek, eta bere egoeraren bidegabekeria agerian jarri zuen nolabait:

Licet ex multis sim occupata angustiis, ut tuo aliquando conspicerem aspectu, tamen haec una secundum Deum in te arbitrio Domini constat prior[i]. Volueram quidem, si daretur mihi uirtus de Deo; sed quia longe este a me peccatrice salus, uolo, et in hac uoluntate meus marcessit animus. (*Praefatio*, 28-33)

Kezka asko ditudan arren, egunen batean zure begitartea ikusi ahal izateak du niretzat lehentasuna, baldin eta Jainkoak hala uste eta nahi badu. Hori nahiko nuke behintzat, Jainkoak bertute hori emango balit; baina, salbazioa urrun daukadanez, nik, bekataria honek, hori nahi dut, eta, nahi horretan, zimeldu egiten da nire arima.

Ama gisa sentitzen zuen hutsunea betetzeko, beraz, testamentu espiritual moduko bat utzi zion ikusi nahi bai baina ikusi ezin zuen seme nagusiari, eta, seme horren bidez, baita bigarren seme jaioberriari ere:

Haec uerba a me tibi directa lege, intellige et opere comple, fratremque tuum paruulum, cuius modo inscia sum nominis, cum baptismatis in Christo acceperit gratiam, insinuare, nutrire, amare, ac de bono in melius prouocare ne pigeas, atque hunc codicellum Manualis a me comprehensum, et in tuo nomine conscriptum, cum perfectum loquendi uel legendi acceperit tempus, illi ostende, et admone legendo. (I, 7, 24-31)

Irakur itzazu zuzentzen dizkizudan hitz hauek, uler itzazu eta jar itzazu praktikan, eta ez izan nahigaberik zure anaia txikia, zeinaren izena ez baitakit oraindik, Jainkoaren baitan bataioaren grazia jasotzen duenean, aholkatzeko, hezteko, maitatzeko, eta onetik hobera eramateko, eta, hitz egiteko eta irakurtzeko sasoiria heltzen denean, erakutsieziaiozu nik ondutako eta zure izenean idatzitako Eskuliburuaren liburutxoa hau, eta gidatu ezazu irakurtzen duen bitartean.

Lanaren atariko poema batean (*Epigramma*, 19-20), «ahizpa lagun eta leial» bat (*consors amica fidaque*) aipatzen du Dhuodak; nahiz eta ezin dugun jakin, ez nor den pertsona hori, ez zer leku zuen ahizpatasunak IX. mendeko gizartean, baliteke Dhuoda erabat bakarrik egon ez izana *Liber manualis* idatzi zuen bitartean.

7. Rosvita

Bizi: X. mendea (fl. ca. 960-970).

Otondarren garaian, Saxonia Behereko Gandersheimen abadiako elizemakumea izan zen Rosvita. Bertako maistren gidaritzapean, testu klasikoak eta kristauak irakurri zituen, eta, nolabaiteko hezkuntza-maila erdietsita, idazteari ekin zion. Askotariko lanak ondu zituen: batetik, zortzi legenda hagiografiko; bestetik, sei teatro-lan; azkenik, Oton I.aren bertso-kronika bat (*Gesta Ottonis*) eta Gandersheimen abadiaren jatorriaren laudorio bat (*Primordia coenobii Gandeshemensis*)³⁸.

Teatro-lanak dira Rosvitaren testurik originalenak: Terentzioren komediak ordeztzeko proposatutako testuak dira, Rosvitaren ustez komediagile latindarraren obrak ez baitziren irakurle kristauentzako egoki. Hala, iturri hagiografikoetatik ateratako istorioak moldatu zituen, eta elkarrizketa-moduan aurkeztu; lan gehienetan, emakume kristau garbiak dira protagonistak, gizon pagano ankerrei aurre egiteko adorea erakusten dutenak. Teatro-lanen atariko gisa, hitzaurre bat eta liburuaren «zenbait babesle jakintsuri» zuzendutako gutun bat txertatu zituen Rosvitak. Bi testu horietan, umiltasunez aurkeztzen du bere burua, «talentu xumea» duela eta bere «emakumezko talentu» hori mugatua dela esanez. Alabaina, baieztatzen du ezin diola Jainkoak emandako dohainari uko egin, eta, beraz, lana idaztera behartuta dagoela:

Non enim dubito mihi ab aliquibus obici · quo d huius vilitas dictationis multo inferior · multo contractior · penitusque dissimilis eius quem proponebam imitari · sit sententiis · Concedo · Ipsi tamen denuncio · me in hoc iure reprehendi non posse · quasi his vellem abusive assimilari · qui mei inerciam · longe praecesserunt in scientia sublimiori · Nec enim tantę sum iactantię · ut vel extremis me presumam conferre auctorum alumnis · sed hoc solum nitor · ut licet nullatenus valeam apte · supplici tamen mentis devocione acceptum in datorem retorqueam ingenium · Ideoque non sum adeo amatrix mei · ut pro vitanda reprehensione Christi qui in sanctis operatur virtutem quocumque ipse dabit posse cessem praedicare · (*Praefatio*, 6-8)

Ez dut zalantzarik batzuek aurpegiratuko didatela nire idazlanen ezdeustasuna askoz txikiagoa dela, askoz mugatuagoa, imitatu asmo dudanarena baino, eta erabat bestelakoa adierazpideetan. Onartzen dut; alabaina, horiei beraiei esaten diet ez dela bidezkoa ni horregatik gaitzestea, gehiegikeriaz nahiko banu bezala neure burua jarri beren jakintza gorenarekin nire baldartasuna nabarmen gainditu dutenen parean. Izan ere, ez dut autore handien azken ikasleekin ere alderatua izan naitekeela uste izateko adinako harrokeriarik; aitzitik, nahiz eta ez naizen batere gai, eginahal guztian saiatzen naiz jaso dudan talentua Emaileari itzultzen nire pentsamenduaren debozioaren eta erreguen bidez. Eta, horregatik, ez diot — gaitzespena saihestearren — santuengan diharduen Kristoren bertutea predikatzeari uzten, berak horretarako ahala ematen didan hein guztian; ez dut neure burua hainbestearaino maite.

Pasarte horri jarrazten dioten lerroetan, bere lanaren aldeko aldarrikapen bat egiten du Rosvitak, beretzat behintzat baliagarria dela agerian jarritz:

38. Berschinek (2001) editatu ditu Rosvitaren lan guztiak. Haren ediziotik aipatzen ditut Rosvitaren testuen latinezko pasarteak; euskarazkoak, berriz, nire itzulpenetik (San Juan Manso, 2024).

Si enim alicui placet mea devotio · gaudebo · si autem · vel pro mei abiectioe vel pro vitiosi sermonis rusticitate nulli placet · memet ipsam tamen iuvat quod feci · quia dum proprii vilitatem laboris in aliis meę inscientię opusculis heroico ligatam strophio · in hoc dramatica vinctam serie colo · perniciosas gentilium delicias abstinendo devito · (*Praefatio*, 9)

Izan ere, nire debozio hau baten bati atsegin bazaio, poztu egingo naiz; baina aitzitik, dela nire kaskartasunagatik, dela nire hizkuntza akastunaren trakeskeriagatik, ez bazaio inori atsegin, niri neuri behintzat balio dit egindakoak; zeren, nire lanen ezdeustasunean dihardudan bitartean —nire ezjakintasunak eman dituen beste lantxo batzuetan ezdeustasun hori girlanda heroiko baten bidez lotuz, eta oraingoan, berriz, segida dramatiko batean josiz—, paganoen plazer kaltegarrietatik aldentzen eta itzurtzen naiz.

Rivera Garretasen (1990, 81. or.) esanetan, bere identitate femeninoaren kontzientzia idatziz adierazi eta bere lanetan kontzientzia hori islatu zuen lehen emakumea da Rosvita. Nolanahi ere, haren garaiko gizarteak begi onez ikusten zituen Terentzioren komediak, eta, horrenbestez, Rosvitak ez zuen komediagile latindarra ordezkatzetik hortu.

8. Rosvitaren ostean

XI. mendetik aurrera ere izan ziren latinez idatzi zuten emakumeak; ezagunenak, agian, Eloisa (ca. 1092-1164) eta Hildegarda Bingenekoa (1098-1179) dira. Orduko beste hainbat emakumeren testuak ere heldu zaizkigu, baina gehienek ez zuten latinez idatzi, ezpada beste hizkuntza batzuetan, nork berean: Castelloza, Hadewijch Anberesekoa, Margarita Porete, Juliana Norwichekoa edota Margery Kempe dira emakume idazle horietako batzuk. Ezberdintasunak ezberdintasun, guztiak ziren elizemakumeak edo nobleak, literaturak gutxi batzuen esku egoten jarraitu baitzuen luzaro³⁹.

Bibliografia

- Albrecht, Michael von (1997-1999). *Historia de la literatura romana*, I-II, Herder [Jatorrizko izenburua: *Geschichte der römischen Literatur*, 1994^e].
- Banniard, Michel (1992). *Viva voce. Communication écrite et communication orale du IV^e au IX^e siècle en Occident latin*. Institut des études augustiniennes.
- Berschin, Walter (argtz.) (2001). *Hrotsvit. Opera omnia*. Teubner.
- Bilbao Telletxea, Gidor (2002). *Latin-literaturarako sarbidea*. UEU.
- Brunhölzl, Franz (1990-1996). *Histoire de la littérature latine du Moyen Âge*, I-II, Brepols [Jatorrizko izenburua: *Geschichte der lateinischen Literatur des Mittelalters*, 1975].
- Cabaret Dupaty, M. (itzle.) (1842). *Poetae minores*. Panckoucke.
- Dronke, Peter (1984). *Women Writers of the Middle Ages. A Critical Study of Texts from Perpetua († 203) to Marguerite Porete († 1310)*. Cambridge University Press.
- Godman, Peter (1985). *Poetry of the Carolingian Renaissance*. Duckworth.
- Grimal, Pierre (1981). *Diccionario de mitología griega y romana*. Paidós [Jatorrizko izenburua: *Dictionnaire de la mythologie grecque e romaine*, 1951].

39. XI. mendetik aurrerako lekukotasunei dagokienez, abiapuntu izan daitezke Dronkeren (1984, 84 hurr.), Wilsonen (1984) eta Thiebauxen (1987) lanak.

- Gundlach, Wilhelm (argtz.) (1892). *Dominabus Sanctis Richildę et Radegundi Caesaria exigua* (*Monumenta Germaniae Historica, Epistolae Merovingici eta Karolini aevi*, I, 450-453). Weidmann.
- Holder-Egger, Oswald (argtz.) (1887). *Vitae Willibaldi et Wynnebaldi auctore sanctimoniale Heidenheimensi* (*Monumenta Germaniae Historica, Scriptores rerum Merovingicarum*, XVI.1, 80-117). Hahn.
- Homeyer, Helene (argtz. eta itzle.) (1979). *Dichterinnen des Altertums und des frühen Mittelalters*. Schönningh.
- Krusch, Bruno (argtz.) (1888). *De vita Sanctae Radegundis libri duo* (*Monumenta Germaniae Historica, Scriptores rerum Merovingicarum*, II, 364-377, 378-395). Hahn.
- Krusch, Bruno (argtz.) (1902). *Passiones vitaeque sanctorum aevi merovingici* (*Monumenta Germaniae Historica, Scriptores rerum Merovingicarum*, IV). Hahn.
- Leo, Friedrich (argtz.) (1881). *Venanti Fortunati Opera Poetica* (*Monumenta Germaniae Historica, Auctores antiquissimi*, IV.1). Weidmann.
- López Las Heras, Maite (itzle.) (2022a). *Poetandreak Literatura Greko-latindarrean*. Balea Zuria.
- López Las Heras, Maite (itzle.) (2022b). *Egeria. Ibilbidea*. Testu Zaharrak.
- Lopez de Luzuriaga Martinez, Iñaki (2016). *Euskaldunak eta karolingiar iraultza. Akitania eta Baskonian barrena*. UEU.
- Luis, Pío de (itzle.) (1984). *Obras completas de San Agustín. XXV. Sermones (5.º). 273-338. Sermones sobre los mártires*. Biblioteca de Autores Cristianos.
- Macnamara, Jo Ann, Halborg, John E. eta Whatley, E. Gordon (artzg. eta itzle.) (1992). *Sainted Women of the Dark Ages*. Duke University Press.
- Maraval, Pierre (argtz. eta itzle.) (1982). *Égérie. Journal de Voyage (Itinéraire)*. Cerf.
- Marchand, James (1984). The Frankish Mother: Dhuoda. In Katharina M. Wilson (argtz.), *Medieval Women Writers* (1-29. or.). Manchester University Press.
- Maude, Kathryn (argtz. eta itzle.) (2017). Berthgyth's Letters to Balthard. *Medieval Feminist Forum, A Journal of Gender and Sexuality: Subsidia*, 1-24.
- Pertz, Georg Heinrich (argtz.) (1829). *Nithardi historiarum libri IIII* (*Monumenta Germaniae Historica, Scriptores*, II, 649-672). Hahn.
- Riché, Pierre (argtz.) (1975). *Dhuoda. Manuel pour mon fils*. Cerf.
- Rivera Garretas, María-Milagros (1990). *Textos y espacios de mujeres. Europa, siglo IV-XV*. Icaria.
- Ruiz Arzalluz, Iñigo (1988). Catálogo de las traducciones vascas de obras latinas de la Antigüedad. ASJU, 22/2, 541-46.
- Ruiz Arzalluz, Iñigo (2010). Traducciones vascas de los clásicos griegos y latinos (1802-1936). In Francisco García Jurado, Ramiro González Delgado eta Marta González González (argtz.), *La historia de la literatura grecolatina durante la edad de plata de la cultura española (1868-1936)* (487-508. or.). Universidad de Málaga.
- Ruiz Bueno, Daniel (argtz. eta itzle.) (1962a). *Actas de los mártires*. Biblioteca de Autores Cristianos.
- Ruiz Bueno, Daniel (argtz. eta itzle.) (1962b). *Cartas de San Jerónimo*. Biblioteca de Autores Cristianos, I-II.
- Salrach, Josep M. (2020). Duoda, la comptessa escriptora educadora. In Borja de Riquer (zuz.), *Vides catalanes que han fet història* (81-87. or.). Edicions 62.
- San Juan Manso, Enara (2022). Erromatar emakume idazleak: jakingarriak eta lekukotasunak. *Uztaro*, 123, 147-164. <https://doi.org/10.26876/uztaro.123.2022.7>
- San Juan Manso, Enara (itzle.) (2024). *Rosvita. Teatro lanak*. UEU-UPV/EHU.

- Settipani, Christian (2004). *La Noblesse du Midi Carolingien. Études sur quelques grandes familles d'Aquitaine et du Languedoc du IXe au Xle siècles. Toulousain, Périgord, Limousin, Poitou, Auvergne*. Prosopographica et Genealogica.
- Thiebaux, Marcelle (itzle.) (1987). *The Writings of Medieval Women. An Anthology*. Garland.
- Thiebaux, Marcelle (argtz. eta itzle.) (1998). *Dhuoda. Handbook for Her Warrior Son. Liber Manualis*. Cambridge University Press.
- Wilson, Katharina M. (argtz.) (1984). *Medieval Women Writers*. Manchester University Press.
- Wright, Roger (1982). *Late Latin and Early Romance in Spain and Carolingian France*. Francis Cairns.